




- 1- orratz magnetikoa,
- 2- ipar-hego gezia
- 3- ipar-hego lerroak
- 4- zirkulu graduatua
- 5- norabide gezia
- 6- euskarria eskaleekin
- 7- lupa
- 8- kordela



Suunto, Silva, Recta... marka onak eta ezagunak dira, eta oso garestiak ez diren modeloak eskaintzen dute ere. Beste batzuek ere euren funtzioa betetzen dute, hala nola, Geonaute, Quechua...

Erosterakoan ondokoak izan behar dituzu kontuan, garrantziko ordena jarraituta:

Orratz imanduak (1) mugimendua moteltzen duen likidoan sartuta egon behar du, leun giratu behar du eta buruz jo barik, ziurtatu burbuilarik ez daukala.

Zirkulu graduatua (4) graduak markatzen ditu eta giratzen duen zirkulua da. 360 graduekin egon behar du graduatuta (iparrorratz batzuk 400 graduekin daude graduatuta), Bi gradutan behin egon behar du bananduta eta errez irakurri behar dira. Badira gradutan behin bananduta daudenak, eta zehatzago ematen badu ere, ziurtatu behar duzu lerroak bereizteko gai zarela. Batzuentzat zaila gerta dakiguke irakurtzea, lerroak elkartzen zaizkigulako eta bi gradutan banandutakoak nahiago ditugu.

Zirkulu graduatuaren beheko partean **iparraren gezia (2)** agertu behar da marraztuta. Garrantzitsua da. Ereduan gezi bat dago marraztuta (ipar-hego gezia), baina forma desberdinak izan ditzake: bi lerro paralelo, marka lodiagoa, etab...

ipar-hego lerroak (3) : Zirkulu graduatuaren barruan daude (lerro paraleloak), beharrezkoak dira maparen gainean iparrorratza ondo kokatzeko. (iparrorratz batzuek ez daukate)

Eskala graduatuak (6): ohikoak diren eskalak izatea komenigarria da (1:25.000 eta 1:50.000) kalkuluak egin barik koordinadak neurtzeko eta bilatzeko.

Norabide gezia (5) euskarrian serigrafiatutako marka bat da; gezia gain lerro osoa agertzen bada, hobeto.

Lupa (7) ez da ezinbestekoa baina lagungarria da maparen zehaztasunak irakurtzeko.

Plastikozko euskarria (6): kordela pasatzeko lekuan forma kurbatua dute batzuek, ona da iparrorratza maparen gainean plano ipintzen dugunean ez oztopatzeko, eta eskuan hartzeko erosoago.

Kordela (8). Eusteko aparte neurriak hartzeko erabili ahal da ere.